

## **2001eko URRIAREN 29ko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, bi mila eta bateko urriaren hogeita bederatzian, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez, Xabier Balerdi Urdampilleta; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

### **2.- UDALBILTZA PARTZUERGOA**

Lizartzako Udalbatza Osoak Udalbiltzarekin bat egitea erabaki zuen, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretziko abenduaren hemezortziko datan.

Gaur beste urrats berri bat emateko parada dugu, "Udalbiltza Partzuergoa" entitate publiko eta nazionalarekin bat egitea hain zuzen ere.

Hori dela eta, 2001eko Urriaren 16an Oartzunen eratu zen Udalbiltza Partzuergoarekin bat egiteko erabakia hartzea proposatzera nator, ezaugarri hauekin:

LEHENA.- Lizartzako Udala "Udalbiltza Partzuergoa" eta bere estatutuekin bat dator eta bertan sartzeko eskaera luzatzen dio Partzuergo horren Kontseilu Nagusiari.

Partzuergoaren eraketa akta zein estatutoak erabaki honi erantzen zaizkio.

BIGARRENA.- Udal honen aurrekontu orokorraren %1, 2001eko urteko ekarpen gisa onartzea, zeinak hasierakoa izanik Partzuergoaren eraketa gastuak zein harturiko konpromezuak biltzen dituen.

HIRUGARRENA.- Udalbiltza Partzuergoan, Udaleko Ordezkarri gisa aritzeko, Jose Antonio Mintegi Arrate eta Antton Balerdi Garmendia ordezkari bezala izendatzea.

### **PARTZUERGOAREN ERAKETA AKTA**

Oiartzunen, bi mila eta bateko urriaren hamaseiean.

M<sup>a</sup> VICTORIA JOARISTI OLARIAGA, OIARTZUNGO UDALEKO IDAZKARI OROKORRAREN aurrean,

#### AGERTZEN DIRA

XABIER IRAGORRI GAMIO JN., adinez nagusia, OIARTZUNGO Udaleko Alkate-Lehendakaria, 15.878.430 N NA. duena.

JOKIN ZUBELDIA ARANBURU JN., adinez nagusia, ZALDIBIAKO Udaleko Alkate-Lehendakaria, 72.430.312 NA. duena.

ELIXABETTE LABURU LABAKA AND., adinez nagusia, ASTIGARRAGAKO Udaleko Alkate-Lehendakaria, 15.933.278 m NA. duena.

#### DIHARDUTE

Xabier Irigorri Gamio Jn. Oiartzungo Udaleko Alkate-Lehendakari bezala, Udalaren izen eta ordezkartzan, kargu horretan ari dela egiaztatzen dudalarik, nabaria zaidalako. Akto honetarako ahalmena Oiartzungo Udalbatzak 2001eko uztailaren 26an egindako batzarraldian eman zion, Alkatearen oniritziarekin Udal Idazkariak emandako ziurtagirian jasotzen den moduan.

Aipatu ziurtagiria, 2001eko uztailaren 27ko data duena, akta honi atxikitzen zaio.

Jokin Zubeldia Aranburu Jn. Zaldibiako Udaleko Alkate-Lehendakari bezala, Udalaren izen eta ordezkartzan, kargu horretan ari dela egiaztatzen dudalarik, nabaria zaidalako. Akto honetarako ahalmena Zaldibiako Udalbatzak 2001eko Abuztuaren 13an egindako batzarraldian eman zion, Alkatearen oniritziarekin, Udal Idazkariak emandako ziurtagirian jasotzen den moduan. Aipatu ziurtagiria 2001eko irailaren 24ko data duena, akta honi atxikitzen zaio.

Elizabette Laburu Labaka And. Astigarragako Udaleko Alkate-Lehendakari bezala, Udalaren izen eta ordezkartzan, kargu horretan ari dela egiaztatzen dudalarik, nabaria zaidalako. Akto honetarako ahalmena Astigarragako Udalbatzak 2001eko Urriaren 4an egindako batzarraldian eman zion, Alkatearen oniritziarekin Udal Idazkariak emandako ziurtagirian jasotzen den moduan. Aipatu ziurtagiria, 2001eko Urriaren 5eko data duena, akta honi atxikitzen zaio.

Eraketa-akta honetan parte hartzeko nahikoa gaitasun badutela iristen diodalarik, nire aurrean

#### ESATEN DUTE:

- I.- Oiartzun, Zaldibia eta Astigarragako Udalek Euskal Herriko Udalerrien arteko harremanak sendotu eta interes amankomunak elkar bultzatzeko helburua izango lukeen erakunde publikoa sortzeko asmoz pausuak eman dituztela.
- II.- Toki Jaurbidearen oinarriak onartzen dituen 7/85 Legearen 87. artikulua zera dio: Toki Erakundeak beste Administrazioekin edota interes publikoa lantzen duten irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuekin Partzuergoak eratu ditzaketela.

III.- Ondorioz, Oiartzun, Zaldibia eta Astigarragako Udalek Toki Administrazioa diren heinean, dagokien eskuduntza erabiliz “Udalbiltza” izeneko Partzuergoa sortzea erabaki dute.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik,

#### XEDATZEN DUTE

LEHENA.- Akta honen bitartez “Udalbiltza” izeneko Partzuergoa eratzen da, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 87. artikuluan aurreikusienetakoa izanik.

BIGARRENA.- Aipatu Partzuergoa goian esandako Legea, 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Toki Jaurbidean indarrean dagoen Araudia jasotzen duen Bateratutako Idazkia onartzen duena, Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua, Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidea arautzen duen 30/92 legea eta honekin batera atxikitzen diren Estatutuen arabera arautuko da.

HIRUGARRENA.- Partzuergoaren xedea Euskal Herriko udalerrien artean interes amankomunak bultzatzearena izango da.

LAUGARRENA.- Partzuergoaren eratzailleak urteko aurrekontuan %1aren ohiko diru-ekarpena egingo dute.

BOSTGARRENA.- Partzuergoaren kide guztiak akto honetan ordeztuak egonik, Kontseilu Nagusiaren ezohiko batzarraldia egiten da eta, aho batez honako akordioa hartzen du:

Xabier IRAGORRI GAMIO Jna Lehendakaria izendatzea.

Jokin ZUBELDIA ARANBURU Jna. Lehendakariordea izendatzea.

Aipatu kideak kargua onartzen dute, eranskinean jasotzen den agirietan.

Xabier Irigorri Gamio Jn., Jokin Zubeldia Aranburu Jn., eta Elizabette Laburu Labaka And., hurrenez hurren, Oiartzungo, Zaldibiako eta Astigarragako Alkate-Lehendakariak ematen dute eta neuk, Idazkari naizenez, ziurtatzen”.

## **UDALBILTZA PARTZUERGOAREN ESTATUTUAK**

### **I. TITULUA**

#### **Izena eta Toki-Erregimena**

1. Art.- UDALBILTZA Partzuergoa eratzen da Oiartzunen (Gipuzkoan). Partzuergoa borondatezko izaera duen elkarte bat da, erakunde publikoaren kontsideroa izango duena, nortasun juridiko propioarekin eta erabateko ahalmenarekin bere helburuak betetzeko. Espainiako Toki-Erregimenari buruzko legerian, eta bereziki Toki Erregimeneko Oinarrietako 7/85 Legeko 87. artikuluan eta Toki Erregimenaren Testu Bateratuko 110. artikuluan xedatutakoaren arabera eraenduko da.
2. Art.- Partzuergoa “UDALBILTZA” deituko da.

### **II. TITULUA**

#### **Elkartearen Egoitza eta Eraketa**

3. Art.- Partzuergoa mugarik gabeko denboraldirako eratzen da eta Oiartzunen izango du bere egoitza. Soru ahal izango dira elkartearen lokalak herri gehiagotan Batzorde Eragileak hala erabakita, eta honek izango du egoitza nagusia eta gainerako egoitzak aldatzeko ahalmena ere.
4. Art.- Partzuergoa honako Udal hauek osatzen dute: Oiartzun, Zaldibia eta Astigarraga.

### **III. TITULUA**

#### **Helburuak eta Lurralde-Eremua**

5. Art.- Hauek izango dira Partzuergoaren helburuak: elkartutako erakundeen osoko garapena eta beren arteko elkarlan instituzionala bultzatzea, elkarrekin batera lan eginez beren lurralde-eremuko lurralde, gizarte- eta kultur antolamendua lortzeko. Eta jomuga horretara iristeko tresna bezala, honako puntu haueetan laburbil daitezkeen garapen-estrategiak landu eta baliatuko ditu:

Eskualdearen garapen ekonomiko eta soziala lortzeko beharko diren ekintzak planifikatu eta betetzea.

- a) Elkartutako erakundeen ekimenak kanalizatu eta bultzatzea.
- b) Jarduera ekonomikoa erraztuko duen gizarte- eta zerbitzu-ingurune baten izantza bultzatzea, garapen jasangarria delakoaren parametroen barnean, zeren eta kolektibitatearen aldetik garapen jasangarriaren aldeko jarrerak eta zerbitzuen sektorearen prestaketa egoki eta modernizatu batek bakarrik segurtatzen baitute hazkundera lortzeko marko egokia.
- c) Ekonomia, gizarte- eta kultur eragile guztien parte-hartze lortzea gaur egungo arazoaren konponbide bateratuko prozesuan, agente horiek Euskal Herriaren etorkizunari buruzko gogoeta eta diseinua egiteko prozesuan konprometiaraziz.
- d) Ekimen publiko eta pribatuekin elkarlanean jardutea, elkartutako erakundeen edo hauekin batera jardun dezaketenen lurraldean egiten diren jarduerak eta inbertsioak finantzatzeko.
- e) Partzuergoaren funtzionamendurako eta bertatik sustatuko diren jardueretarako beharko den finantzaketa kudeatzea.

- f) Euskal Herriko gizartea bere garapen-interesei lagun diezaioketen arazo, baliabide, ekintza eta proiektuei buruz sentsibilizatzea.
- g) Kudeatzen diren jarduerekin loturarik izan dezaketen edo kontsekuenteak izan daitezkeen jarduera guztiak egitea.

UDALBILTZA Partzuergoaren barnean, bere parte egiten duten toki-erkaundeek izan ditzaketen jarduera, ekimen eta, oro har, jarduketa guztiak koordinatzera bideratutako ekintzak sartzen dira, honako gai hauekin eralzaionatutako hainbat proiektu garatzeko udalen arteko elkarlanaren testuinguruan:

- a) Sustapen-politikak.
- b) Administrazioen batek toki-erakundeen edo erakunde elkartuen alde emandako diru-laguntzak banatu eta kudeatzea, edota berdin hauek Partzuergoaren helburuarekin lotutako eskumenak betetzerakoan beste administrazioen alde eman ditzaketenak ere.
- c) Erakunde elkartuen eskumeneko lanak eta zerbitzuak exekutatzeko. Helburu honen barnean, toki-erakundeen eskumenekoak diren zerbitzu-multzo handia sar daiteke.
- d) Iritsitako eskumenak garatzeko beharrezkoak diren egoitza, lokal edo eraikinak partekatzea.
- e) Ondare-ondasunak lagatzea eta erabilera-lagapena onartzea, toki-erakundeek egindako jardueretara destinatuzeko, Partzuergoaren helburua betetzearren.
- f) Herritarren komunitate bakoitzaren beharrian eta nahiak asetzen lagun dezaketen jarduerak garatzea eta zerbitzu publikoak egitea, honako gai hauek dagokienean:

- Babes zibila, suteak prebenitu eta itzaltzea.
- Hirigintzako disziplina ordenatu, kudeatu eta exekutatzea, etxebizitzak sustatzea, parkeak eta lorategiak.
- Ondare historiko artistikoa.
- Ingurumenaren babesa.
- Hornidurak, hiltegiak, feriak, azokak eta kontsumitzaileen defentsa.
- Osasun publikoaren babesa.
- Kanposantuak eta hileta-zerbitzuak.
- Gizarte-zerbitzuen eskaintza.
- Kultur eta kirol, denbora libreko okupazio eta turismoko jarduerak edo instalazioak.
- Auzo bakoitzeko herritarren eskubideen defentsa.

Inoiz ere ez da ulertuko toki-erakunde elkartuei toki-erregimeneko legeriak gai horiei buruz aitortzen dizkien eskumenen guztien lagapen orokor bat egiten denik, baizik eta aipatu gaiekin zerikusirik duten eskumenen egikaritzan toki-erakundeen koordinazio zorrotza eta borondatezkoa halbidetuko da Partzuergoko organoen aldetik. Horretarako, toki-erakundeak eta gainerako erakunde elkartuak koordinatu ahal izango dira Partzuergoko organoen bitartez, edota jarraitu ahal izango diete hauek proiektu edo programa koordinatuak burutzeko egin diezazkieketen proposamenei.

6. Art.- Partzuergoak ahalmena izango du bere helburuak betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen egintza guztiak egiteko, eta horien artean honako hauek:

- a) Diru-laguntzak eta bestelakoak erakunde publiko lokal, foral, estatal, autonomiko eta Europar Batasunekoei eskatu eta kudeatzea.
- b) Nola toki-erakundeei hala gainerako partzergokideei ezartzen zaizkien kuoten ordainketa galdatzea.
- c) Erakunde pribatuen laguntzak edo diru-laguntzak bere eskumeneko eremuan kudeatzea.
- d) Banketxe eta aurrezki-etxeei kredituak eta maileguak eskatzea.
- e) Hitzarmen administratiboak eta obra- eta zerbitzu-kontratuak, edota bere funtzionamendurako beharrezkoak diren beste edozein egintza formalizatzea.
- f) Behar diren zerbitzuak antolatzea.
- g) Langile-kontratazioak egitea, Administrazio Publikoetako pertsonalari aplikatu beharreko legeriako printzipioen arabera, urtero onetsiz bere plantilla organikoa eta enplegu-eskaintza, halakorik balego.
- h) Erakudnearen funtzionamendua bermatzeko beharrezkoak diren inbertsioak egitea.
- i) Erakunde elkartuen artean Elkartasun Fondo bat jartzea beren garapen osorako.

Estatutu hauetan aurreikusitako zerbitzu eta jarduerak egiteko, merkataritza izaerako sozietate bat sortu ahal izango du Partzuergoak,

edota toki-erakundeei aitortutako zerbitzu publikoetako gainerako kudeaketa-formak erabilik.

Partzuergoak delegatu ahal izango ditu Sozietate horretan edo zerbitzua kudeatzeko sor lezakeen erakundean, bere helburuak betetzeko beharrezkotzat eman ditzakeen eskumenak.

#### **IV. TITULUA**

##### **Partzuergokideei buruz**

7. Art.- Honako eskubideok dituzte partzuergokieek:

- a) Partzuergoaren objektu diren helburuen lorpenean parte-hartzea.
- b) Partzuergo Batzorde Exekutiboa, Batzorde Teknikoak eta egon daitezkeen gainerako organo kolektibo edo pertsona-bakarrak eratzeko hautatzea eta hautatua izatea.
- c) Kontseilu Nagusian boz eta botoarekin partehartzea.
- d) Partzuergoaren martxako edozein alderdiri buruz interesgarri gerta litekeen informazioa eskatzea.
- e) Partzuergotik askatasun osoz banantzea, lehen seinalatutako baldintza eta terminoetan.
- f) Hartutako erabakiak inpugnatzea, galda daitezkeen baldintzekin.

8. Art.- Hauek dira partzuergokideen betebeharrak:

- a) Partzuergoaren Estatutuak eta gainerako dokumentuak eta baliozki hartutako erabakiak betetzea eta betearaztea.

- b) Kontseilu Nagusiaren batzarretara joatea.
- c) Karguak betetzeko hautatuak edo izendatuak izaten direnean, horiek onartzea eta behar bezalako ardurarekin betetzea.
- d) Aplikatzeko onartuak egon daitezkeen kuotak, hau da, sarrerakoak, aldizkakoak eta apartekoak ordaintzea.

## **V. TITULUA**

### **Partzuergoaren Erregimen Funtzionala eta Juridikoa**

- 9. Art.- Partzuergoaren ordezkariak eta zuzendaritza, Lehendakariak eta Lehendakariordetzak beteko dituzte, organo bananduezinak bezala, eta Batzorde Exekutiboak eta Kontseilu Nagusiak, organo kolegiatu bezala, bakoitzak bere eskumenen eremuan.
- 10. Art.- Partzuergoko organo kolegiatuen bilera guztiei jasoko dizkie aktak Idazkariak, bertan adieraziz zein bildu diren, zein gai landu dituzten, labur-labur, zein emaitza izan dituzten botoetan, eta, hala gertatuz gero, zenbat boto partikular eman diren hartutako erabakiaren aurka, eta berdin interesgarri irizten den beste edozein gorabehera ere.

Hartutako erabakiaren aurkako botoek eta abstentzio arrazoituek, libratu egingo dute erabakitik ondoriozta daitezkeen erantzukizunetatik.

## **I. KAPITULUA**

### **Kontseilu Nagusia**

- 11. Art.- Kontseilu Nagusia, erakundeek eta herritarrek Partzuergoan parte hartu eta erabakitzeko organoa da; bertan ordezkatuak daude Partzuergokide diren Erakunde guztiak.

Erabakiak, bildutako partzuergokideek emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira, quorum handiago baten berrespena beharko luketen kasuetan izan ezik. Zuzenbidezko botoen bi heren beharko dira honako erabaki hauek hartzeko:

a) Desegiteko proposamena.

b) Estatutuak aldatzea.

Joan ahal izango dira bileretara beren zirkunstantziengatik Lehendakariak edo gutxienez Kontseilu Nagusiko botoen %15 ordezkatzan duten erakundeek hala eskatzen dieten pertsonak. Hauen eskuharmena bozarekin eta botorik gabe izango da.

12. Art.- Kontseilu Nagusiren bilerek ohiko edo aparteko izaera izango dute.

13. Art.- Kontseilu Nagusia baliozki eratua geratuko da, baldin eta lehen deialdian bere kideen botoen erdiak gehi bat lortzen baditu. Eta bigarren deialdian baliozki eratua geratuko da, zein ere den bildutako kopurua, baldin eta bazkideen bosten baten adinako edo gehiagoko boto-kopurua lortzen badu.

Bigarren deialdia, lehenengoarentzako finkatutako ordutik bost minutura egingo da, eta ez da espresuki adierazi beharko berori egiterakoan.

14. Art.- Partzuergokideek izendatzen dituzten pertsona fisikoak haien ordezkari Kontseilu Nagusian, eta dagokiozkien kredentzialak emango zaizkie hauei.

15. Art.- Ohiko Kontseilu Nagusi urtean behin deituko da, eta bere eguneko gai-zerrendan, jarraraz daitezkeen beste gaiez gainera, urteko kontuen eta aurrekontuen eztabaida eta onespeneri, eta aurreko urteari

dagozkionen likidazio eta betepenari buruzkoa egongo da; eta Batzorde Exekutiboak egingo du urteko kudeaketaren azalpena ere.

16. Art.- Kontseil uNagusiaren beste edozein deialdik aparteko izaera izango du.

17. Art.- Aparteko Kontseilu Orokorraren deialdia, Lehendakariak edo Batzorde Exekutiboak egoki irizten dutenean, edota gutxienez partzuergokideen bosten batek eskatzen duenean egingo da. Azken kasu honetan, eskaera idatziz egin beharko da eta eskatzaileen sinadurak egiaztaturik geratuko dira; hauek eztabaidatu eta baloratuko diren gaiak zehaztuko dituzte eta bilera eskatzen denetik gehienez hilabete bateko epean egingo den Kontseilu Nagusiaren Eguneko gairerrendan sartuko dira. Epe hori deialdia egin gabe igaroko balitz, egin ahal izango du deialdia talde eskatzaileak, eta Lehendakariak deialdi horretara joateko obligazioa izango du.

18. Art.- Eskuduntza hauek ditu Kontseilu Nagusiak:

- a) Estatutuak, Barne Araudia eta gainerako agiri organiko garrantzitsuak onetsi eta aldatzea.
- b) Erabaki daitezkeen jarduketa-planen garapen-maila desberdinak – diagnostia, helburuak, jomuga estrategikoak eta konklusio-dokumentua- gainbegiratu eta onestea.
- c) Ohiko eta aparteko Aurrekontuak, Inbertsio Plana eta berau osatzen duen programa finantzarioa, hala nola Partzuergoaren Kontu Orokorrak onestea.
- d) Estrategiak lantzeko prozesua bukatu ondoren, beroriek ezartzeko prozesua bultzatzea.
- e) Lehendakaria hautatzea eta kentzea.

- f) Kontseilu Nagusiko Lehendakariordea eta Batzorde Exekutiboan Toki Erakunde partzuergokideen ordezkartzan jardungo duten kideak hautatzea.
- g) Ondarea erosi eta inorentzea.
- h) Obrak, zerbitzuak eta horndiruak kontratatzeko baldintza-pleguak onestea, eta beroriek behin betiko adjudikatzea.
- i) Batzorde Exekutiboaren eta gainerako gobernu-organoen kudeaketa kontrolatu eta fiskalizatzea.
- j) Zerbitzuen kudeaketa-modua onestea.
- k) Langile-plantila eta lanpostuen zerrendak onestea eta ordainsariak finkatzea.
- l) Erakunde edo administrazio publiko berriak Partzuergoan sartu ala ez erabakitzea.
- m) Partzuergoaren jarduketa-programa onestea.
- n) Akzio administratibo eta judizialak egikaritzea.
- o) Kreditu- eta altxortegi-eragiketak onestea.
- p) Urte bakoitzean egindako lanaren Txosten informatiboa onestea eta erakunde partzuergokide guztiei bidaltzea.
- q) Zerbitzuren antolamendu eta funtzionamendu onenerako egokienak diren neurri guztiak hartzea.
- r) Partzuergoa desegitea.

Kontseilu Nagusiak delegatu ahal izango ditu Batzorde Exekutiboan eskuduntza horietatik egokien iruditzen zaizkionak, a) c) e) f) i) j) k) eta r) puntuetan jasotzen direnak izan ezik.

19. Art.- Kontseilu Nagusiaren deialdia, ohikoa nahiz apartekoa, oro har, Lehendakariari dagokio, partzuergokideek eskatuta egiten denekoan aurreikusitakoaren eragozpenik gabe.

Partzuergokideei idatziz eta gutxienez bilera egin aurreko hamabost egun anaturaleko aldearekin jakinarazi beharko zaie. Jakinarazpenean datu hauek jasoko dira gutxienez: Kontseilua egingo de lekua, eguna eta ordua, eta eguneko Gai-zerrenda osatzen duten puntuak zehazki.

Deialditik Kontseilua egiten denera bitarteko epean partzuergokideen esku egongo dira egoitza sozialean Eguneko Gai-zerrenda osatzen duten puntuei buruzko dokumentazioa.

20. Art.- Era berean, Kontseiluan eztabaidatuko dira elkartearen helburuaren berriazko gaiak, Batzorde Exekutiboak edo partzuergokideen bosten batek eskatzen badu eta eskaera hori Kontseilua egin behar baino gutxienez hamar egun natural lehenago egoitza sozialen aurkezten bada; eta partzuergokideei, Kontseilua egin behar baino gutxienez hiru egun natural lehenago jakinarazi beharko zaie proposatutako gai berriak sartu direla zerrendan.

21. Art.- Kontseilu Nagusia Lehendakariak, Lehendakriordeak eta Erakunde Partzuergokideen ordezkariak osatzen dute.

Erabakiak biltzen direnen gehiengoz hartuko dira.

## **II. KAPITULUA**

## **Batzorde Eragilea**

22. Art.- 1. Batzorde Eragilea, Partzuergoa gobernatu, kudeatu eta administratzeko organo kolegiatua da.

2. Batzorde Eragilea Lehendakariak, Lehendakariordeak, Diruzainak eta Erakunde Publiko eta Pribatu Partzuergokieen ordezkartzako 8 bokal boz eta botodunek osatuko dute.

Lehendakaria: Partzuergokoa bera.

Lehendakariordea: Partzuergokoa bera.

Sei bokal: Administrazio partzuergokide desberdinen ordezkartzako kideak. Partzuergokideak toki-erakundeak bakarrik izango balira, hauetako bakoitzak bi ordezkari izango ditu.

Hiru bokal: Talde sektorialean ordezkartzan.

Joan ahal izango dira Batzorde Eragilearen bileretara Lehendakariak eskatzen dien pertsonak, gai puntualez aholkatu eta informatzeko eginkizunarekin. Hauek bozarekin bana botorik gabe esku hartuko dute.

3. Idazkaritza Nagusia joango da Partzuergoaren Batzorde Eragilera eta honen bilera guztietan hartuko du parte, bozarekin eta botorik gabe, berari dagozkion eginkizunak betetzearren.

4. Batzorde Eragileko Lehendakariak gonbidatu ahal izango ditu organo honen bileretara, beren zirkunstantziengatik joatea eskatzen zaien pertsonak. Hauek eskuharmena bozarekin baina botorik gabe izango da.

5. Batzorde Eragileko bokalek Estatutuetan ezarritako kausengatik utziko dituzte beren karguak, ordezkatzen duten Erakundeak erabakitako aginte-ezeztapenez edo Batzorde Exkutiboaren erabakiz.

23. Art.- 1. Batzorde Eragilean Toki Erakundeen ordezkaritzan dauden kideak lau urteko eperako hautatuko dira.

2. Batzorde Eragilean gainerako erakundeen ordezkaritzan dauden kideak, Erakundeetako bakoitzak proposatuta izendatuko dira.

24. Art.- Batzorde Eragilearen eskuduntza dira berariaz Partzuergoaren koordinazioa eta administrazioa eramatekoak direnak eta, oro har, honako hauek:

- Plan estrategikoaren garapena kontrolatzea bere fase desberdinetan.
- Jarduketa-plan desberdinak egiteko ardura izan dezaketen ekipo teknikoen lanaren jarraipena egitea.
- Batzorde teknikoak eratzea, eta hauen lana antolatu eta dinamizatzea.
- Plan desberdinetako batzorde teknikoak osatuko dituzten pertsonak eta hauen Lehendakariak izendatzea.
- Garapen-estrategietan parte hartzen duten organo guztien funtzionamendua koordinatzea.
- Jarduketa-planen faseetako bakoitza garatzeko ezarritako eritmoak betetzen direla segurtatzea.

- Euskal Herriarekin lotura handia duten prestigio ezaguneko pertsoneri iritzia eskatzea egoki iruditzen zaien gaiei buruz.
- Kontseilu Nagusiari jarduketa-planak proposatzea, onets ditzan.
- Kontseilu Nagusian hartutako erabakiak betetzea.
- Kontseilu Nagusiaren ezagutzan jartzea, erabaki dezan, bazkideak onartu, zigortu eta banantzeko proposamenak, Estatutuetan eta Partzuergoaren agirietan jasotakoaren arabera.
- Batzar Nagusirako deia egitea, Lehendakariak uko eginez gero.
- Urteko txosten ekonomikoa, aurrekontua, memoria eta jardueraplana eta komenigarritzat ematen diren gaineko txostenak egitea, Kontseilu nagusiari aurkezteko.
- Estatutuetakoa eta elkartearen gainerako agirietako aginduen edukia interpretatu eta aplikatzea.
- Partzuergokideen sarrerako, aldizkako eta aparteko kuoten zenbatekoa eta horiek ordaintzeko modua erabakitzea.
- Estatutuak eta Partzuergoaren gainerako arauak egitea edo aldatzea proposatzea.
- Kontseilu Nagusiaren deialdia proposatzea.
- Elkartearen helburuak betetzeko behar diren agiri publiko eta pribatuak notario aurrean egitea erabakitzea.
- Partzuergoak beste edozein erakundetan parte-hartzea, edo horren eraketa sustatzea erabakitzea, Partzuergoren interesen

administrazio zuzenerako eta bere helburuak hobeto betetzeko komenigarri irizten denean.

- Erakunde publiko edo pribatuek diru-laguntzak, bestelako laguntzak, kredituak eta abalak eskatzea.
  - Partzuergoaren Idazkaritza Nagusia izendatzea, eta beraren desegintza erabakitzea, dela Estatutuetan adierazitako kausetakoren batengatik, edota bere izendapena ezeztatzeagatik.
  - Ahokulari teknikoak izendatzea, eta horien kargu-uzteak erabakitzea, dela Estatutuetan adierazitako kausetakoren batengatik, edota bere izendapenak ezeztatzeagatik, eta Planarekin zerikusia duten lanen elaborazioa kontratatzea, beroriek egiteko baldintza eta moduak ezarriz.
  - Toki-erakundeez bestelako erakunde elkartuak, dagokien sektoreko ordezkari-taldera esleitzea.
  - Partzuergoaren helburuekin bat etorriz, erakundearen martxa onerako beharrezkoak diren eta beste organoei erreserbatuak ez dauden, edota Batzorde Exekutiboari delegatuak egon litezkeen lege eta estatutuetatik eratorritako gainerako eginkizun guztiak.
25. Art.- Batzorde Eragilearen bielretarako deia Batzordeko bereko Lehendakariak egingo du eta gutxienez bost egun naturaleko aurrealdearekin jakinaraziko die bere kideei, presa handiko kasuetan izan ezik.

Jakinarazpena idatziz egingo da, eta bertan, gutxienez, bilera egiteko lekua, eguna eta ordua adieraziko dira, Eguneko Gai-zerrenda osatzen duten puntuekin batera.

26. Art.- Batzorde Eragileko gutxienez lau kidek idatziz gairen bat eztabaidatzeko bilera egitea eskatzen dutenean, Batzordeko

Lehendakariak, eskaera egiten denetik zortzi egun naturaleko epean bilera hroretarako deia egitera obligatu dago.

Batzorde Eragileko Lehendakariak ez balu deai egingo, bilera egiteko eskaera sinatzen dutenek biltzeko deia egingo diete Batzordeko kide guztiei, ekitaldi horretarako exijitzen diren baldintzak betez, eta biltzen direnen arteko zaharrenak egingo du lehendakariaren.

27. Art.- Batzorde Eragilearen bilera lehen deialdian baliozki eratua geratuko da kide gehienak biltzen badira. Eta bigarren deialdian, gutxienez lau kide biltzen badira.

Erabakiak, biltzen direnen gehiengoz hartuko dira. Bozketaren emaitza berdinketako izango balitz, Batzorde Eragileko lehendakariaren botoa ebazlea izango da, eta horrekin hautsiko berdinketa.

### **III. KAPITULUA**

#### **Lehendakaria**

28. Art.- Lehendakaria Partzuergoko orgno exekutiboa da, berak ordeztzen du legez, eta berak deitzen eta presiditzen ditu Batzar Nagusia eta Batzorde Eragilea, eta berak betetzen erabakiak.

29. Art.- Honako ahalmen hauek ditu Lehendakariak:

- Batzar Nagusia eta Batzorde Eragilea deitu eta presiditzekoa, eztabaidak zuzenduz eta ekitaldiak jasoz.
- Baliozki erabakitako ordainketak agintzekoa.
- Partzuergoaren ordezkarietako eginkidunak betetzekoa.

- Legeriak, organo sozialek eta Estatutuek esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak.

30. Art.- Lehendakaria lehendakariordeak ordeztuko du postua hutsik geratzen denean edo Lehendakaria kanpoan edo gaixo denean.

31. Art.- Hauek izango dira Lehendakariak kargua uzteko kausak:

- Agintaldia betetzea.
- Kontseilu Nagusiko ordezkarien gehiengo absolutuak hartutako utzarazteko erabakia, horretarako zentsura-mozio egokia aurkeztu ondoren eta bertan hautagai alternatibo bat proposatuz.
- Gorputzeko edo adimeneko ezgaitasuna.
- Bere karguarekin bateraezinezkoak diren jarduerak egitea.
- Bere kargua betetzean egindako delituengatiko zigor-epaiz kondenatua izatea.
- Dimisioa.
- Heriotza.

#### **IV. KAPITULUA**

##### **Partzuergoko Idazkari Nagusia**

33. Art.- Partzuergoko Idazkaritza Nagusia izango da Kontseilu Nagusiko eta Batzorde Eragileko idazkaritzako eginkizunak beteko dituen organo teknikoa, eta bera Partzuergoko Kudeatzailetzari lagnduko diona ere bere berariazko eginkizunetan.

Hauek izango dira Partzuergoko Idazkaritza Nagusiaren eginkizunak:

- a) Sarrera-eskaerak hartu eta jakinaraztea.
- b) Partzuergokideen erregistro-liburua eramatea.
- c) Organoen bileretako aktak jasotzea eta horretarako egongo den liburura pasatzea, Kontseilu Nagusiko Lehendakariaren edo Batzorde Eragileko Lehendakariaren oniritziarekin, bilera zein organorena den kontu.
- d) Ziurtapenak ematea.
- e) Partzuergoaren fondoak bildu eta zaintzea.
- f) Kontabilitatea zuzentzea.
- g) Bazkideen sarrerak oharteman eta horien kontua eramatea.
- h) Ekonomia mailako eragiketa guztiak aurrekontuen aldetik begiratzea, eta Kudeatzailek ematen dituen ordainketa-aginduak betetzea.
- i) Urteko memoria, aurrekontua eta balantzea aurreratzea, Batzorde Exekutiboari aurkezteko.
- j) Batzorde Eragileari bere berariazko eginkizunetan gomendatzen zaizkion lanak zuzentzea.

## **V. KAPITULUA**

### **Batzorde Teknikoak**

34. Art.- Partzuergoko Batzorde Teknikoak, Partzuergoaren helburuak garatzeko jarduketa-estrategiak landu eta prestatzeko lantalde bezala eratzen dira.

Batzorde Tekniko bakoitzak, batzordea zertarako sortua izan den gai hartan adituak diren pertsonen osatua egongo da. Bere izendapena Batzorde Exekutibotik egingo da. Batzorde bakoitzak, behar bezala jardun ahal izateko, Lehendakari bat, Idazkari bat eta gomendatzen zaizkion eginkizunak betetzeko izendatutako gainerako kideak izan beharko ditu.

Batzorde Teknikoen eginkizunak, beren eraketako erabakian zehazten direnak izango dira.

## **VI. TITULUA**

### **Agiri-Erregimena**

35. Art.- Honako liburu hauek osatzen dute Partzuergoaren agiri-erregimena:

- a) Partzuergokideen erregistro-liburua. Bertan partzuergokide bakoitzaren izena, erregistro-zenbakia, helbidea eta zein sektore edo eskualde ordezkatzeko duen jasoko da.
- b) Akta-liburua. Hemen, Kontseilu Nagusiak eta Batzorde Eragileak egiten dituzten bileretan jasotzen diren aktak transkribatuko dira. Aktak Idazkaritza Nagusiak izenpetuko ditu eta Partzuergoko Lehendakariaren edo Batzorde Eragileko Lehendakariaren oniritzia izango dute.
- c) Kontabilitateko liburuak. Hauetan Partzuergoaren ondarea osatzen duten ondasunen zerrenda eta kideen eskubideak eta betebeharrak jasoko dira.

- d) Indarrean dagoen ordenamendua betetzeko, partzuergo-izaerako pertsona juridikoentzat derrigorrezkoak diren liburuak.

## **VII. TITULUA**

### **Erregimen Ekonomikoa**

36. Art.- Partzuegoak, eratzerakoan, zero pezetatan zifratzen du bere ondarea.

Partzuergoa honako baliabide ekonomiko hauetatik hornituko da:

- a) Partzuergokideen ekarpen eta kuotetatik.
- b) Partzuergoaren alde egindako dohaintza eta legatuetatik.
- c) Estatuko, atzerriko edo udalaz gaindiko izaerako edozein erakunde publiko nahiz pribatuk eman diezazkiokeen diru-laguntzetatik.
- d) Bere helburu sozialaren barnean sartzen diren legezko jarduerak egitegatik lortzen diren diru-sarreretatik.
- e) Kreditu-eragiketen produktutik.
- f) Bere ondaretik eta zuzenbide pribatuko gainerakoetatik etortzen zaizkionetatik.
- g) Indarreko legeriaren arabera aizu diren beste edozein diru-sarreretatik.

37. Art.- Aurrekontua urtero egingo da; Batzorde Eragileari dagokio hori formulatzea, eta Kontseilu Nagusiari onetsi, gaitzetsi edo zuzentzea.

38. Art.- Batzordeak, Estatutuetan ezarritakoaren arabera, bere helburuak betetzeko aplikatuko ditu bere baliabideak.

39. Art.- Batzorde Eragileak erabaki ahal izango du aurrekontuari aldaketak egitea, gastu-partida berriak sortzeko edo aurreikusita zeudenak gehitzeko, beste artidak gutxitzean edo zuzenean berekin lotuta dauden diru-partida berriak sortzean babestuz, eta erabaki ahal izango dira, baita, gastu-partida berriak edo aurreikusita zeudenak gehitzea, aurreikusitako diru-sarreraren gaintik egindako gehikuntzen kontura ere.

40. Art.- Toki-erakundearen parte-hartze ekonomikoa honako ekarpen hauek erabakiko dute:

- a) Beren aurrekontuetan, instalazioak mantendu eta amortizatzetik eta zerbitzuaren kudeaketa aurruntetik ondorioztaturiko obligazioei erantzuteko esleitu beharko dituztenek.
- b) Aparteko izaerarekin, inbertsioak egin beharretik erator daitezkeenek.
- c) Partzuergokide diren toki-erakundeek aurrekontu orokorraren %1 ordainduko dute Partzuergorako urteko ohiko ekarpen gisa. Eta aparteko ekarpenak egin beharko balira, berriz, toki-erakunde bakoitzaren biztanle-kopuruaren arabera egingo da horien banaketa.
- d) Sor litezkeen defizitei erantzuteko partzuergokide bakoitzaren parte-hartze ekonomikoa, ohiko kuoten proportzio berekoa izango da.

Ohiko ekarpenak urtero eguneratuko dira, aurreko ekitaldi bakoitzak izaten dituen aldaketen arabera, Kontsumorako Prezioen urteko Indizeari jarraituz.

## **VIII. TITULUA**

### **Desegitea eta Likidazioa**

41. Art.- Partzuergoa desegite eta likidazioko prozesuan sartuko da honako kausa hautakoren batengatik:

- a) Partzuergokideen beren borondateagatik, Aparteko Batzar Nagusian erabakita, bildutako edo ordezkaturako partzuergokideen bi herenen aldeko botoarekin.
- b) Partzuergoaren helburuak betetzeagatik.

42. Art.- 1. Partzuergoa deseginda, bere likidazioa egingo da.

2. Batzorde Eragilea egingo da dagoen ondarearen kargu, eta bera arduratuko da betetzeko leudekeen obligazioak betetzeaz. Desegintzak oerabakian zehaztuko da ondasunen likidazioa nola egin beharko den, kideek egindako ekarpenen proportzioan.
3. Langile funtzionarioak edo kontratatuak, zein Administrazioetatik etorri diren, hara itzuliko dira, eta erabaki beharko da, baita, Partzuergoak uzzenean kontratatutako pertsonalaren destinoa edo desagerpena ere.

## **IX. TITULUA**

### **Giza baliabideak eta baliabide materialak**

43. Art.- Partzuergokoak diren toki-erakundeek adskribitu ahal izango dituzte Partzuergoaren helburuaren zerbitzuko langileak.

### **3.- U-1 INDUSTRIALDEA. GESTIOKO SISTEMA ALDAKETA**

Lorenzo Castresana Bengoetxea, Maria Dolores Carrera Goñi, Serapio Aguirre Goñi eta Jose Ignacio Galarraga Urretabizkaia Jaun/Andreek, U-1 Industrialdeko Gestio Sistema Aldatzea eskatu dute, hau da: Kooperazio Sistematik, Konpentsazio Sistemara aldatzea.

Eskaera aztertu eta eztabaidaturik, U-1 Industrialdeko Gestio Sistemaren Aldaketa onartzea, aho batez eraki da.

Honenbestez, U-1 Industrialdeko Gestio Sistema, Konpentsaziokoa izango da.

#### **4.- JUAN AGINAGA IZAGIRRE – GOIKOETXETXIKI BASERRIAREN LEHEN ERABILPEN BAIMENA**

Juan Aginaga Izagirre Jaunak, Goikoetxetxiki Baserriaren Jabeak, 2000ko Maiatzaren 4ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez emandako obra baimenaren arabera eginiko Goikoetxetxiki Baserriaren Lehen Erabilpen baimena eskatu du.

Udaleko Teknikoek aldeko txostenak luzatu dituzte.

TRLS.ko 242.2 eta RDU.ko 1-10 artikuluek diotenaren arabera, PROPOSATZEN DA:

Udal honek dituen konpetentzien barnean, eta beste Erakundeei dagozkienaren kalterik gabe, eskatutako lehen erabilerako baimena ematea.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

#### **5.- EUSKAL PRESO POLITIKOEN AURKAKO DISPERTSIOARI BURUZKO MOZIOA**

Euskal Preso Politikoek aurkako dispertsio politikak hamarnako heiotza eta zauritu eragin ditu. Azkenak Soraluzeko Iñaki Saez eta Asier Heriz

herritarren heriotza eragin eta Irantzu Benito larriki zaurituak utzi zituena. Hirurak, Brievako kartzela bidean geratu ziren, Lurdes Txurruka herritarrarekin egotera zihoazela.

Urteak dira jada estatu espainiar eta frantziarrak euskal preso politikoen aurkako dispertsioa diseinatu eta praktikan jarri zutenetik. Euskal preso politikoen eskubideak urratzeaz aparte, beraien senitarteko eta lagunentzat zigor gehigarria suposatzen duen neurri honek, Euskal Herriko gizartearen gehiengoaren, nazioarteko legeriaren eta baita espainiar eta frantziar legeriek esaten dutenaren aurka ere indarrean jarraitzen duen erabaki kriminala suposatzen du. Ehunka Euskal Herritarren eskubideak bortizki urratzen dituen neurri politiko honek, astero milaka kilometro egitera behartzen ditu presoekin une labur batean egoteko aukera besterik izaten ez duten senitarteko eta lagunak. Azken urte hauetan erabaki politiko honek eragin dituen hainbat heriotza eta larriki zaurituriko hamarka pertsonen zerrendara gehitu behar dira Iñaki eta Asierren heriotza eta Irantzu-ren zauri larriak.

Euskal Herriko gizarteak bitarteko desberdin asko erabili ditu azken urteotan, Euskal Presoen dispertsioarekin bukatzea eskatuz. Gizartearen borondate hori Udalek ere azaldu dute. Euskal Herriko Udaletako ordezkariak, hainbat aldiz eskatu eta esijitu die espainiar eta frantziar gobernuei, dispertsioarekin behin betikoz bukatzeko; dispertsioak, preso bera eta bere ingurukoak suntsitzea beste helbururik ez duelako. Legeria guztiek ere arbuiatua. Azken bi heriotza eta zauritu larriek horren islada mingarri bat besterik ez dira.

Espainiar eta frantziar gobernuek, Euskal Herriak –baita gure herriak ere– hainbat aldiz adierazi duen borondatea zanpatzen jarraitzen dute. PP, PSOE, RPR eta PSF-k, besteak beste, ardura zuzenda dute, Euskal presoen eskubideen aurkako jardueran eta beraiena da, honek sortzen dituen ondorioen ardura ere; herriaren hitzari uko egiten diotelako eta eskubideak zanpatzen dituztelako.

Euskal Herriak bi estatuekin duen gatazkaren konponbideari ateak itxi, eta herri honen hitzari uko eginaz, errepresioa eta bide polizial-judiziala garatzen dutenena da ardua. Euskal Presoekiko politika hori, hitzaren ukazioaren beste pausu baten gisan aztertu behar dugu. Beraz, jarrera hau duten frantziar eta espainiar Estaturen aurrean, hitzetatik ekintzetara pasatzearen beharra inoiz baino nabarmenagoa da. Egoera honen aurrean, Batasunako Udal Taldeak, Osoko Udal Batzarrari honako puntu hauek aurkeztu nahi dizkio bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezen:

- 1.- Espainiar eta frantziar estatuek diseinaturiko dispertsioaren ondorioz hil diren Iñaki Saez eta Asier Heriz, eta larriki zauritua suertatu den Irantzu Benito, mota honetako gertaeren azken protagonistak izan daitezen, Euskal presoen dispertsioarekin oraintxe bukatzeko esijitzen diegu frantziar eta espainiar gobernuei.
- 2.- Udal honek, inoiz baino ozenago berretsi nahi du, euskal presoen eskubideen aldeko eta dispertsioaren aurkako mezua. Herriaren hitza delako eta hitz hau, espainiar eta frantziar estatuek errespetatu egin beharra dutelako.
- 3.- Udal honek "Euskal Herriaren Hitza eta Erabakia Errespetatu. Euskal Presoak Euskal Herrira" lemapean ordu laurdeneko kontzentrazio batetarako dei egiten die herritarrei.
- 4.- Bestalde, azaroaren 10ean udal hautetsiei Soraluzen dispertsioaren aurka egingo den ekimenara dei egiten diegu.
- 5.- Europako parlamentuaren eta instantzia judizialen aurrean dispertsioaren salaketa egiteko konpromezua hartzen du udal honek.
- 6.- Erabaki honen berri frantziar eta espainiar gobernuetako lehendakariari, herria eta komunikabideei ematea.

Euskal Preso Politikoen aurkako dispertsio politikari buruz aurkeztutako mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **6.- ALKATETZAREN DEKRETUAK**

### **PLAZA AURRE ETXEA**

Plaza Aurre Etxeko fatxada pintatzeko baimena ematen da, baldintza hauekin:

Egindako eskarian ez da zehazten andamioak erabiliko diren hala ez. Lanak burutzeko andamioak behar izan ezker, hauek beharrezko diren segurtasun neurriak beteko dituzte nahiz bertan arituko diren langileentzat nahiz kaletik pasako direnentzat. Era berean, obrak hasi biano lehen udaletxeari adieraziko zaio non eta zer epeetan egongo diren jarrita.

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamar t'erdia direnean.